

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ADMINISTRAZIO OROKORRAREN KONTUAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA - 2012**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak EAeren Administrazio Orokorraren 2011ko ekitaldiaren kontuaren fiskalizazio lana mamitu du, epaitegia arautzen duen 1/1988 Legeak agindutakoari jarraiki. Txostena HKEEren Osokoaren kideek aho batez onetsi dute.

Fiskalizazio-lanak kontuak egitean erabilitako kontularitzako printzipioen azterketa eta 2012ko urtean zehar administrazioaren aribidean legezko arautegia bete izanaren azterketa besarkatu du.

Legea betetzeari dagokion atalean, erakunde fiskalizatzaileak aldeko iritzia eman du EAeren Administrazio Orokorrak legezko arautegia betetzeari dagokionez; alabaina, hainbat salbuespen jaso ditu.

Administrazioko kontratazioari dagokionez hainbat lege-hauste azaleratu dira, bestek beste, obra kontratu batean onartutako aldaketen ondorioz hasiera batean esleitutako aurrekontua % 55 gehitu izana; horrek lehia printzipioak urratzen ditu.

Halaber, Gobernu Kontseiluak arautegian finkatutako salbuespenezko prozedurari jarraiki, obra-kontratu, hornidura eta zerbitzuak eta bestelakoak kontzeptuan 67,2 milioi euro baliokidetu dituela azpimarratu da, aurrez Ekonomia Kontrolerako Bulegoak kontrako txostena jaulkia zuela. Hona hemen ez-betetze nagusienak: publikotasun eta lehia printzipioak ez betetzea; behin epea iraungia dela zerbitzua ematen jarraitzea; eta dagokion administrazio espedientea izapidetu gabe aldaketak egitea.

Diru-laguntzei dagokienez, guztira 22 milioi euro eman dira zuzeneko diru-laguntzetan, indarreko arautegiak agintzen duen apartekotasunaren betekizuna urratuz.

Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorrak aurkeztutako Kontuari dagokionez, Epaitegiak uste du alderdi esanguratsu guztietan erakusten duela 2012ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa; salbuespen bakarra Oroitidazkian abenduko aparteko

ordainsariaren zenbatekoak, 92,7 milioi euro, zituen erabilgarritasun mugaketez ez informatu izana da, 20/2012 Errege Dekretu-Legea betez ordaindu ez zena.

Barne Kontrolerako Sistemai eta Kudeaketa Alderdiei buruzko Irizpenen atalean administrazioaren jardueri dagozkien beste alderdi batzuk barne hartu dira, hala nola, aurrekontuak eta kontabilitatea, langileria, kontratazioa, diru-laguntzak e.a. HKEEK hobetu edo zuzentzeko gai direla irizten dienak.

Finantza egoerari dagokionez, HKEEK 2009-2012 aldian honekin lotutako parametro guztien bilakaera xehetasunez jaso du, hots, diru-bilketa, jasotako transferentziak, gastuak, aurrezki gordina, diruzaintza geldikin erabilgarria, erabilitako zorra, e.a; berebat, aurrekontu egonkortasunari buruzko hainbat irizpen egin ditu.